

ALAIN LAMASSOURE HAUTETSIEN KONTSEILUKO LEHENDAKARIA

Alain Lamassoure, Hautetsien Kontseiluko lehendakari gisa, Frantziaren dezentralizazioari buruzko eztabaidetan, Ipar Euskal Herriko hautetsien bozeramaile gisa agertu da. Urtarrilaren 13an Raffarinekin bildu zen, baina erantzun zehatz gutxirekin itzuli zen: euskal departamenduari buruzko ezetza salbu.

«Manifestazioak laguntzen du Euskal Herriaren mezua entzunarazten»

BOB EDME



Eneko Bidegain | BAIONA

Alain Lamassourek, europarlamentari gisa eta Europako Kontseiluko kide gisa, agenda bete du. Atzo Baionan zegoen, Hautetsien Kontseiluaren administrazio kontseiluaren bilera zeukalako. Otsailaren 26ko biltzar nagusia aitzineko hitzordua. Fase estrategiko garrantzitsuan iraganen da biltzarra, dezentralizazio prozesuaren baitan, udaberrian jarrera batzuk hartzeko engaiamendua baitu.

■ **Joan den larunbatean, Batera plataformak 7.000 lagun bildu zituen Baionako karriketan. Manifestarien mezua entzuten ote du Parisek?**

Espero dut Euskal Herriaren mezua Parisen entzuna izanen dela eta orain lanean hasiko gara. Mezua, lehenik, hautetsi nazionalak eraman zuten Parisera. Bilera hura iragatea bera biziki baikorra da. Lehen aldia da, V. Errepublika hasi zenetik, Euskal Herriaren arazoak Lehen ministroaren etxean aipatuak direna. Bestalde, manifestazioak eta, bereziki honen izate baketsu eta herrikoiak, mezu hori pasaraztea lagundu baizik ez du egiten.

■ **Zure ustez, zein da mezu hori?**

Euskal Herri frantsesak ezagutua eta onartua izan nahi du. Ez Parisen, ez eta ere Bidasoatik beste aldean, ez dakite zer egiten dugun hemen eta nola lan egiten dugun. Jean-Pierre Raffarinaren gobernuak, dezentralizazioaren baitan, esperimentazioa abiatuko du. Euskal Herrian, badu hamar urte esperimentatzen ari garela, Garapen Kontseiluarekin eta abar. Hori bertze batzuek ere ezagut eta azter dezaten interesgarria izan daiteke. Baina garrantzitsuenak, gure nortasun eskaera onartua izatea da. Eskualde historiko txiki bat gara eta hori onartua izan dadin nahi dugu.

■ **Nola onartu behar litzateke berezitasun hori?**

Onarpen forma desberdinak

«Europako Konstituzioak erregioak onartu behar ditu»

Gaur eta bihar, Europako Kontseilua bilduko da erregioetaz mintzatzeko. Lamassourek bileran parte hartuko du.

■ **Zuk nola ikusten duzu erregioen lekua?**

Erregioen lekua luzaz pozitua izan da estatuen Europa eta erregioen Europa eztabaidarengatik. Eztabaida hori gainditua da. Eraikitzen ari den Europa estatuena da. Eta hiritarrarena. Hori trinkaturik, erregioen eta hiri elkargoen tokia sanokiago azter dezakegu. Proposatzen dut Europako Konstituzioak erregioen izatea onar dezan. Batetik, EBk dio, Hamabosten Europan, europar politikaren atalen %80 erregioek kudeatzen dituztela eta ez administrazio nazionalak. Bigarrenik, hamabost kideetatik erdiak baino gehiagoan, legeak egiteko bo-

terea duten eskualdeak badaude. Gaur egun, europar instituzioek ez dute eskubiderik iritziak eta informazioak eskualdeekin trukatzeko. Nahiko absurdua da.

■ **Europaren zabalkundeak aldatetarak eraginen ditu...**

Europaren handitzeak mikro-estatuaren sarrera ekarriko du. Beraz, Malta, 400.000 biztanleko estatu independentea izanen da EBN eta Siziliak, handik hurbil dagoen uharteak, 5 milioi biztanlerekin, ez du estatutu bera izanen. Ez litzateke komeni mikro-estatuaren sarrerak arazoak sortzea erregioekin. Horregatik ere, etorria da unea erregioei onarpen forma bat emateko. Aldi berean, EBk ez du estatu bakoitzaren barne arazoetan sartu behar. Erregioen eta estatuaren arteko arazoak ez du EB hunkitzen.

Proposatzen dut estatu bakoitzak bere erregioen zerrenda aurkez diezaion Europari. Zerrenda hori egin ondoren, erregioei eskubideak emanen zaizkie EBrekiko.

■ **Zein lirateke eskubide horiek?**

Batetik, erregioen komiteko kide izateko eskubidea. Bigarrenik, Europako egiturek sistematikoki itauntzeko eskubidea, erregioen eskumena hunkitzen duten Europako legeak prestatzen direlarik. Hirugarrenik, Europako Justizia Gortera jotzeko eskubidea, EBrek eskumen gatazka dutelarik. Azkenik, Europako Legebiltzarra hautatzeko hauteskunde erregimenaren erregioetan oinarritu behar da.

■ **Napolitano txostenarekiko desadostasun batzuk agertzen dituzu?**

Norabide onean doa, horregatik bozkatu nuen alde. Baina eskasegia da, ez doa urte bat lehenago proposatu nuen bezain urrun. Ziur naiz proposatzen dudana bidea ona dela.

■ **Eskualdeak aipatzen dituzunean, «mugaz gaindikoak» ere aipatzen dira?**

Hori, kasuz kasu aztertu behar da. Gure kasuan, argi da mugaz gaindikoaren nozioan aitzindari garela. Europan, ez dago, nik dakidala, BAMEko hiri elkargoa eta Gipuzkoako aldundiaren artean osatu duguna bezalakorik. EBk horrelako ekimenak sostengatzen ditu. Ezin izango gara urrunago joan maila horretan, guhaur nahiko aurreratzen ez bagara. Ez ditu Bruselak finkatuko helburuak mugaz gaindiko elkartzeen inguruan. Hori oinarritik abiatu behar da.